

**ctb**

bizkaiko garraio partzuergoa
consorcio de transportes de bizkaia

PRENTSA-OHARRA

Barik txartela sakelako telefonoaren bidez kargatzeko BGPren “app”-ak 2.414 deskarga izan ditu egun bakarrean

- **Google PlayStore-n aurki daitekeen aplikazioaren erabiltzaileek 6.758 informazio-kontsulta eta kargatzeko 572 eragiketa egin zituzten atzo (563 Barik diru-txartelarenak eta 9 hileko txartelarenak).**

Bilbo, 2016ko martxoaren 1a.

Aktibo egon den lehenengo egunean, Google PlayStore-n dagoen Bizkaiko Garraio Partzuergoaren (BGP) Barik aplikazioak guztira 2.414 deskarga izan ditu. Barik txartela kargatzeko aukera ematen duen “app” hori dagoeneko eskuratu duten erabiltzaileek 6.758 kontsulta eta kargatzeko 572 eragiketa egin dituzte Android 4 sistema-eragilea edo berriagoa duen smarphone batetik (563 Barik diru-txartelarenak eta 9 hileko txartelarenak). Eragiketa horien bidez 5.607,2 euro ordaindu dira.

Atzotik, beraz, dagoeneko posible da Barik txartela sakelako telefono adimendun batetik kargatzea. Bizkaiko Garraio Partzuergoak (BGP) Google PlayStore-n aktibatu du “app” hori. Aplikazioan, egun bakarrean txartela kargatzeko 2.414 toki berri egon dira erabilgarri, aurretik Bizkaia osoan zehar zeuden 800 kargatzeko tokiez gainera (tabako-dendak, kioskoak, kutxazainak, geltokiak...). Aplikazio berriari esker, erabiltzaileak edozein Barik kargatu ahal izango du, nahi beste aldiz, edozein tokitatik eta eguneko edozein ordutan. Lehenengo egunean, BGPk ez du azpimarratzeko moduko gertaerarik erregistratu.

Partzuergoak aurreikusitakoaren arabera, garraio-txartelak “on line” kargatuko dira; horretarako, NFC (Near Field Communication) teknologia aktiboa duen sakelako telefono “adimentsua” erabili beharko da, eta ordainketa segurua egiteko atebidearen bitartez ordaindu beharko da. Beraz, erabiltzaileak edozein tokitatik handitu ahal izango du bere txartelaren saldoa, edo Barik-en sar daitekeen garraio-txartel bat erosi ahal izango du, kargatzeko saltoki fisiko batera joan beharrik izan gabe.

Ticketing sistemen eremuan izaten diren azken aurrerapen teknologikoak, pixkanaka, Bizkaian ezarri nahi ditu BGPk; hain zuzen, proiektua BGPren politika horren barruan sartzen da. Orain arte, Barik txartelaren ohiko tokietan kargatu ahal izan da txartela (Metro Bilbao, Euskotren, Euskotran, Renfe –FEVE barne-, Larreinetako funikularra, Artxandako funikularra, Bilbobus eta Bizkaibuseko kabinak, tabako-dendak, kioskoak, merkataritza lokalak eta BBK-ko kutxazainak); eta abendutik aurrera webgunean bertan (ctb.eus) ere egin daiteke. Gaur egun 1,3 milioi Barik txartel baino gehiago daude zirkulazioan, eta txartelak kargatzeko 800 puntu baino gehiago aurki ditzakegu Bizkaia osoan.

Txartelak “smartphone”-aren bitartez kargatzeko proiektu honetan 96.000 euro inbertitu ditu BGPk. NFC teknologia duten Android gailuetarako aplikazio bat sortu da, eta horren bidez haririk gabeko komunikazioa eduki daiteke (irispen laburrekoa eta maiztasun



ctb

bizkaiko garraio partzuergoa
consorcio de transportes de bizkaia

handikoa) gailuen artean; kasu honetan, txartelaren eta sakelako telefonoaren artean. Eragiketa kriptografikoak eta Barik txartelak egiaztatzeko eragiketak ere jasotzen dira sisteman; hau da, ordaintzeko atebide segurua eta transakzioak berme osoarekin egiteko aplikazio egokiak ditu.

Funtzionamenduari buruzko bideoa:

<http://www.ctb.eus/sites/default/files/Barik2016Eusk.mp4>